

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEA

Industri eta enpresa poligonoetan eta parke teknologikoetan hondakinak jasotzeko zerbitzuen ordenantza aldatzeko erabakia. Behin betiko onspena.

SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEA

Iragarkia

1.º Mankomunitateko Batzarrak 2004ko urriaren 13ko bileran hartutako behin-behineko Erabakia jendaurrean jartzeko epea amaitu denez inolako erreklamaziorik aurkeztu gabe, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoari jarraiki behin beiko bihurtzen da, Industri nahiz enpresa poligonoetan eta parke teknologikoetan hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren 8. artikulua.

2. Aipatutako Ordenantzaren 8. artikulua testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, iragarki hau argitara eman eta ondorengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

3. Erabaki honen aurka, interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Salan, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Donostia, 2004ko abenduaren 13a.—Lehendakaria.
(11765)

**INDUSTRI NAHIZ ENPRESA-POLIGONOETAN ETA PARKE TEKNOLOGIKOETAN HONDAKINAK
BILTZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANT**

8. artikulua. Bilketak egiteko baimenak.

1. Bakarrik San Markoseko Mankomunitateko zerbitzuak edo zerbitzuek dute ahalmena hiri-hondakinak edo asimilagarriak biltzeko. Ondorioz, hondakin-mota horien bilketa beste pertsona fisikoak edo juridikoak egitea debekatuta dago.

2. Bakarrik hiri-hondakinak edo asimilagarriak biltzeko lanak egin ahal izango dituzte aldez aurretik San Markoseko Mankomunitatearen baimena lortu dutenek. Horiek erregistro dokumentala izan beharko dute eta bertan kudeatzen dituzten hondakinen kopurua, izaera, jatorria, helmuga, bilketa-maiztasuna, garraio-bitartekoa eta balioa emateko metodoa azalduko dituzte. Dokumentazio horrek Mankomunitatearen esku egon beharko du Mankomunitateak berak eskatzen duen unean. Urte natural bakoitzari dagokion dokumentazioa hurrengo bost urteetan mantendu beharko da.